

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Jakinarazpena egitea interesdunei, non bizi diren ezin jakinez, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik biztanleen udal erroldan ofizioz baja emateko espedienteak direla-eta

Erabaki hau ezin izan zaio jakinarazi interesdunari, ezin jakinik non bizi den. Beraz, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legeak 59.5 artikuluan ezarritakoa betetzeko (30/1992 Legea, azaroaren 26koa), iragarki hau BOEn argitaratuta —eta alde aurretik, aukerakoa delarik, ALHAOn eta udalaren iragarki taulan—, alkatetzaren 16/177P zenbakiko ebazpenaren jakinarazpena egiten zaio. Hona hemen, hitzez hitz:

“Udal honek, azertu beharrekoa azertu ondoren, bana-banako espedientei hasiera eman die erabaki honen xedapen zatian aipatzen diren pertsonen udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emateko, arauz kanpo erroldatuta daudelako; izan ere, ez dira benetan euren errolda inskripzioetan ageri diren bizitokietan bizi; ondorioz, ez dituzte betetzen Biztanle eta lurralde mugapei buruzko Arautegiaren 54. eta 68. artikuluetan xedatutakoak. Arautegi hori uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

Igaro delarik entzunaldiko izapidearen bidez irekitako alegazio aldia eta, hala badagokio, ALHAOn (alde aurretik), BOEn zein udalaren ediktu taulan jendaurrean jarrita edukitzeko epea, udal honetako Idazkaritza Orokorra ziurtatzen du espediente horietan ez dagoela alegaziorik.

Aginduzko txostenak eskatu zitzaizkion Errolda Kontseiluaren Arabako Atalari, eta, hark, 2016ko uztailaren 27an egindako bilkuran, aldeko txostena egin zuen pertsona horiei biztanle erroldan baja emateko eskaeraren inguruan.

Kontsideratuz bete direla Arautegi horren 72. artikulua ezarritako legezko izapideak, bai eta Estatistika Institutu Nazionalako Lehendakariak eta Autonomia erkidegoekin eta toki erakundeekin eskumenak koordinatzeko zuzendari nagusiak 2015eko urtarrilaren 30ean elkarrekin emandako ebazpenak ezarritakoak, zeinaren bidez jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udalei erroldaren kudeaketari buruz eta bereziki bidegabeki erroldatuta egoteagatik ofizioz baja emateari buruz, eta, orobat bete dela gainerako legeria orokor eta bidezkoak ezarritakoa, alkate honek, legez dagozkion ahalmenak erabiliz, honako hau xedatzen du:

Lehenengoa. Pertsona hauei ofizioz baja ematea udalaren biztanle erroldan:

IZENA ETA ABIZENAK	LEGEZKO ORDEZKARIA	ESPEDIENTEA
A. A. E. B.	D. Mustapha Abounasr Saad Eddne 79.000.322-Z	16011P—17/2016

Bigarrena. Agintzea ebazpen hau BOEn argitaratu aurretik argitaratu dadila ALHAOn eta jar dadila udal honen ediktu taulan, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legeak 59.5 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako (30/1992 Legea, azaroaren 26koa).

Alkateak agindu eta izenpetzen du, Amurrion, 2016ko abuztuaren 18an. Idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut.”

Alkatearen eta behin-behineko idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.

Aurrekoa jakinarazten dizut jakinaren gainean egon zaitezten eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta ohartarazten ezen, ebazpen honen aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen baitu, errekurtsio hauek aurkeztu daitezkeela.

Errekurtsioak eskaintzea. Aurka jotzeko moduak: jakinarazten zaizun ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango duzu Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian (Gasteiz hiribidea, 18 -Justizia Jauregia-), bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, nahi izanez gero (guztiz aukerakoa da) berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diozu ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu zenetik hilabete (1) igaro eta ebazpenik jaso ez bada, errekurtsioari ezezkoa eman zaiola esan nahiko du. Presuntziosko ezezko horren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango duzu. Horretarako, sei (6) hilabete izango dituzu, errekurtsioari ezezkoa eman zaiola jo behar den egunaren ondoko egunetik.

Hala ere, egoki jotzen duzun beste edozein errekurtsio aurkeztu edo egintza baliatu ahal izango duzu.

Amurrio, 2016ko abuztuaren 23a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA